



AKORDIOAK, 2014ko martxoaren 31koak, 2014ko otsailaren 24ko (otsailaren 25eko EHAA, 38 zk.) Ebazpenaz deitutako Udaltzaingoaren behin-behineko agenteen lan-poltsa sortzeko hautaketa prozeduraren Epaimahai kalifikatzailearena.

Goian aipatutako Epaimahai kalifikatzailearen idazkariak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 27.5 artikuluan ezarritakoa kontuan izanik, ondorengo

ZIURTATZEN DU

2014ko martxoaren 31n izandako bileran, aipatutako Epaimahaiak ondorengo Erabakiak hartu dituela:

LEHENA.- Oposizioko hirugarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila, egiteko egutegia argitaratzea. Proba deialdiaren II. Eranskinean agertzen diren hiru ariketa fisikoak egitean datza.

Gaitasun fisikoaren probak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian egingo dira, N-104 errep., 356 km., 01192, Arkauti (Araba). Probak 2014ko apirilaren 7, 8 eta 9an izango dira, goizeko 08:00etan, I. Eranskinean agertzen diren xehetasunekin bat etorritik

Probetan parte hartzearen gaineko erantzukizuna parte-hartzaileena beraiena da; hala, kirola egiteko elementu egokiak ekarri beharko dituzte.

BIGARRENA.- Deialdiaren Hamargarren oinarrian xedatutakoarekin bat etorritik, lehen eta bigarren proba gainditu dituzten pertsonen bigarren proba egitera aurkeztu beharko dutela argitaratzea, proba hori egitera deitutako egunean eta deialdian parte hartzeko eskatutako betekizunak egiaztatzeko jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak ekarri behar dituztela argitaratzea.

Horretarako, ondorengo jatorrizko agiriak edo behar bezala konpultsatuak aurkeztu beharko dituzte:

- a) Espainiar nazionalitatea adierazten duen eta adina frogatzen duen Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte edo gidabaimena.
- b) Alegatutako titulazioa.
- c) Eska daitezkeen gidabaimenak, 2.1.i) oinarrian aurreikusita eran egiaztatu badaitezke ere.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta 35 urte bete dituzten pertsonen eta Udaltzain Kidegoetan Herri-administrazioan zerbitzuan jardun dutela alegatzen dutenek, zerbitzu horiek eman dituztela frogatzen duten jatorrizko dokumentuak edo behar bezala konpultsatutako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.



HIRUGARRENA.- Deialdiaren Zortzigarren Oinarriarekin erlazionaturiko Hamargarren Oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz, euskararen ezagutza merezimendu bezala baloratzea nahi duenak euskararen ezagutza egiaztatzen dion jatorrizko dokumentua edo behar bezala konpultsatutako dokumentua aurkeztu beharko du.

LAUGARRENA.- Akordio hauek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako web orrialdean argitaratzea.

Akordio hauen aurka, izapide-egintza izaera dutenak, ezin izango da administrazio errekurtsorik jarri, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 107. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Arkautin, 2014ko apirilaren 1ean.

Izpta.: **Epaimahai kalifikatzailearen idazkaria**

